



hautzaro bakoitzarentzat



HAUTESKUNDE HAUETAN, HAURRAK IRABAZLE

UNICEF Euskal Herriko Batzordearen proposamenak



HAUTESKUNDE HAUETAN, HAURRAK IRABAZLE

Nazio Batuen Batzar Nagusiak UNICEFi eman zion haurren eta nerabeen eskubideak babestu eta bermatzeko mandatua, haien oinarritzko premiak asetzen laguntzeko eta haien garapena eta potentziala erabat lortzeko aukerak handitzeko.

Euskadin, eginkizun horrek hainbat betekizun dakartza berekin; besteak beste, erakunde publikoei beharrezko neurri guztiak hartzen laguntzea, haurrek eta nerabeek Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan eta onartu berri den Haurren eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legean aitortutako eskubide guztiak ekitate-baldintzetan baliatu ahal izango dituztela bermatzeko.

Gero eta lotura handiagoa dago haurren eta pobreziaren eta desberdintasunaren artean (diru-sarreretan, bizi-baldintza materialetan, osasunean, etxebizitzan edo hezkuntzan), eta gero eta agerikoagoa da haien aurka erabiltzen den indarkeria gure mugen barruan eta kanpoan. Hori dela eta, azken urteotan, haurrek presentzia handiagoa izan dute agenda publikoan eta politikoan. Hala ere, oraindik ez da nahikoa, haurren eta nerabeen ongizatea neurtzen duten adierazleen datuen arabera. Beharrezkoa da oraindik lan egitea haurrek eta nerabeek autonomia-erkidegoko agenda politikoan merezi duten lehentasuna izan dezaten.

Zergatik da beharrezkoa hauteskunde-programetan haurrak eta nerabeak egotea eta aintzat hartuak izatea?

1. Euskadiko biztanleriaren % 16,13 direlako. (Eustat 2023/01/01)

2. Bozkatu ez arren, eskubideen titularrak direlako eta eskubide horiek betetzeak lege eta politika publikoak hobetzeko beharra dakarrelako.

3. Haurren eta Nerabeen Legeak eskubideen subjektu titular gisa aitortzen dituelako eta ordenamendu juridikoan araututako eskubide eta askatasun horien erabilera bermatzen duelako, haurraren edo nerabearen interes goren nabarmenduz.

4. Entzunak izateko eta dagozkien gai guztietan parte hartzeko eskubidea dutelako. Parte-hartzea Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipio gidari bat da, eta Haurren eta Nerabeen Legean ere araututa dago.

5. Haurrak kontuan hartzeak epe ertain edo luzeko ikuspegia erakusten duelako EAEn, eta Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda bezalako ekimen globalekin lotura duelako.

6. Haurtzaroan inbertitzea ekonomikoki errentagarria den aukera bat delako, biztanle guztiei onurak ekartzen dizkiena: garapen ekonomikoa eta soziala sustatzen du, produktibitatea, hazkunde ekonomikoa eta gizarte-kohesioaren mailak handitzean.

7. Haurrak eta nerabeak pobreziarekiko, indarkeriarekiko eta esplotazioarekiko bereziki kalteberak direlako.

8. Orain eta etorkizunean herritar gisa betetzen duten eginkizun bikoitzean, beharrezko politikak eta inbertsioak garaiz ez garatzeak haien eskubideak kaltetu ditzakeelako, eta horrek kostu ekonomiko eta sozial handia izan dezakeelako.

9. Belaunaldien arteko elkartasunagatik: printzipio horretan oinarritutako zerbitzuen eta gizarte-babesaren sistema publikoek haurrei eta haurrak dituzten familiei ere begiratu behar dietelako, justizia- eta jasangarritasun-arrazoiengatik.

10. Nahitaez bete beharreko hainbat tresna juridikotan, haien eskubide guztien bermea zaintzeko konpromisoa hartu dugulako.

Hauteskunde-aldiak une egokia dira atzera begiratzeko eta erdietsitako lorpenak baloratzeko, baina, bereziki, 2018ko Familien eta Haurren aldeko Euskal Itunean eta Haurren eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legean jasotako erronkak eta konpromisoak kontuan hartzeko unea da, haur guztien eskubideak babestu, sustatu eta eraginkor bihurtuko dituzten neurriak identifikatuz. Horixe da dokumentu honen helburua: **UNICEF Euskal Herriko Batzordeak 2024-2027 legealdirako egindako proposamenak jasotzea, haurrak eta nerabeak Euskadiko indar politikoen programen protagonista izan daitezen sustatuz.**

Dokumentu honetan jasotzen ditugun proposamenak 3 zutabetan oinarritzen dira: **eskubideen ikuspegia, hartzaroan inbertitzea eta ekitatea**; eta UNICEFek eta haren aliatuek azken urteotan Europan, Estatuan eta Euskadin haurren eta nerabeen egoeraren errealitatea ezagutzeko sustatu dituzten azterketa eta ikerketa ugaritan oinarrituta daude.

Haurren aldeko politikek aurreko planen ebaluazioa eta haurren egoeraren azterketa diagnostiko sakona izan behar dute abiapuntu, EAEko haurren eta nerabeen benetako egoera ezagutu eta ikusarazteko; zer egin behar duten identifikatzeko, norentzat, non eta zer helbururekin; eta, ondorioz, haien ongizatea eta eskubideak bermatzeko politika egokiagoak, bideratuagoak eta eraginkorragoak diseinatzen laguntzeko. Plangintza horrekin batera, barnean hartzen dituen neurriei heltzeko beharrezko aurrekontua, benetako eragina eta eragin hori neurtzeko aukera emango duten jarraipen-adierazleak aurkeztu behar dira.

Koordinazioa ezin da izan estrategia eta planen osagarria edo bigarren mailako ekintza; aitzitik, haurren eskubideak babesteko estrategiarik eraginkorrenetako bat da, Haurren Eskubideei buruzko Batzordearen 5. ohar orokorrak adierazten duen bezala, eta Haurren eta Nerabeen Legeak jasotzen duen bezala. Lege horretan, erakundeen arteko eta sektoreen arteko lankidetzak, kooperazio- eta koordinazio-eredua arautzeko jardun-printzipioak definitzen dira.

Era berean, jarraipena eta ebaluazioa funtsezkoak direnez, oso positibotzat jotzen dugu **Haur eta**

Nerabeen Batzorde berri bat sortzea **Eusko Legebiltzarrean**, Haurren eta Nerabeen Legea inplementatzen dela eta politika publikoetan haurren eta nerabeen eskubideen zeharkako ikuspegia ezartzen dela zaintzeko.

Era berean, aurkezten diren proposamenen xedea da autonomia-erkidegoaren eremuan beharrezko oinarriak ezartzea haur eta nerabe guztiek beren eskubide guztiak (hezkuntza, osasuna, biziraupena, babesa, etab.) balia ditzaten, nazioarteko komunitateak pertsona guztientzat lortu behar duen **Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan** xedatutakoaren esparruan, modu jasangarrian eta ekitatez eginez. Garapen Jasangarrirako Helburuek (GJH) haurren eskubideak sustatzen dituzte, eta haur guztien eskubideak eta ongizatea ahalik eta gehien babesteko aukera ematen dute, arreta jarrita pobrezia, desberdintasunari eta jasangarritasun ezari lotutako arazo nagusietan. Helburua milioika haurren bizitzak eraldatzea da, Euskadin eta mundu osoan, inor atzean utzi gabe.

Eta hori guztia, **haurren eta nerabeen benetako partaidetza** ardatz gisa hartuta. Haurrek eskubidea dute informazioa jasotzeko, beldurra eta zalantza adierazteko, eta eragiten dieten gaiei buruzko erabakietan parte hartzeko. Nahiko argi ikusten dute gobernuak nola gastatu behar duen dirua euren eskubideak egia bihurtzeko. Haiekin egindako kontsultek eta proiektuek ere agerian uzten dute euren iritzia eman nahi dituztela eta eman ditzaketela, eta gobernu autonomikoaren erantzukizuna dela haiei kontsulta egiteko mekanismoak antolatzea. Funtsezkoa da haurrek eta nerabeek parte hartzeko benetako guneak eta

mekanismoak sustatzea, ez bakarrik eskubideen titular gisa, baita gizartea eta politika eraldatzeko funtsezko eragile gisa ere. Horrela, beren ikuspegiarekin lagundu dezaketen herritar aktibo gisa kontuan hartzen dituztela ikusiko dute. Erabaki, neurri eta ekintza politiko guztiek konpromisoari eutsi behar diote haurrak eta nerabeak protagonista hartuko dituen partaidetza hori gardena, lagunkoia, kontu ematekoa, eta egon daitezkeen arriskuekiko sentikorra izan dadin.

lido horretan, UNICEF Euskal Herriko Batzordearen ardatz estrategikoei dagokienez, haur eta nerabe talde bati egindako kontsulta-prozesu baten ondoriozko hausnarketa eta proposamen nagusiak dokumentu honetan txertatzen dira.

5 ardatz estrategikorekin lotutako 10 proposamen aurkezten ditugu: haurren eta nerabeen zaintza eta babesa munduan; haurren babesa Euskadin; haurren pobrezia; osasun mentala; eta haurren eskubideak eremu digitalean.

6 KONPROMISO HAURREKIN

Haurrek gure mugen barruan eta kanpoan jasandako pobrezia, desberdintasunek edo indarkeriak haurrak protagonista izatea eskatzen dute, eta Estatuko eta Autonomia Erkidegoko agenda politikoan parte hartzea.



Pobreziaren aurkako borroka



Garapenerako lankidetz indartzea



Osasun mentala zaintzea



Haurren eskubideak bermatzea ingurune digitalean



Haurrak babestea



Hartzaroan inbertitzea

MUTURREKO EGOERAK ETA KALTEBERATASUN HANDIENA BIZI DUTEN MUNDUKO HAURRAK ETA NERABEAK



Pandemiaren eraginen, gatazken, klimaldaketaren eta asaldura ekonomikoen ondorioz larriagotutako krisiek geldiarazi egin dute aurrera egindako bidea, eta milioika haur muturreko pobrezian utzi dituzte. Haur horiei guztiei ezin diegu hutsik egin orain. Haurren pobrezia amaiera jartzea hautaketa politikoa da. Ahaleginak areagotu behar dira haur guztiek funtsezko zerbitzuak (hezkuntza, nutrizioa, osasun-arreta eta gizarte-babesa barne) eskura dituztela bermatzeko eta, aldi berean, muturreko pobrezia arrazoi sakonei heldu behar zaie. Global Trends in Child Monetary Poverty According to International Poverty Lines txostenaren arabera, mundu osoko 333 milioi ume (6tik 1) muturreko pobrezia-egoeran bizi dira.

Haurrak muturreko pobrezian bizitzeko probabilitateak bikoiztu egiten dira helduekin alderatuta diru-sarrereri dagokionez, baina pobrezia diru-sarreraren kontuaz haratago doa; kalkuluen arabera, 665 milioi haur bizi dira pobrezia multidimentsionala sufritzen duten familietan. UNICEFek Haurren Mundu Egoerari buruzko txostenean kalkulatu zuenez, 2030era arte 69 milioi haur baino gehiago hilko dira saihestu daitezkeen

gaixotasunengatik; 124 milioi ez dira lehen eta bigarren hezkuntzara iritsiko; eta 750 milioi neska egongo dira ezkontzera behartuta, oraindik adingabeak izanda.

Horregatik, haurrek eta nerabeek ahalik eta babes handiena izango dutela bermatu behar dugu euskal kooperazio-politikaren esparruan, haurren ongizatea eta garapena lehentasuna izango dela bermatuz eta aurrera eramango diren ekintzek haurren eta nerabeen bizitzan izango duten eragina ebaluatuz, batez ere krisi humanitarioen eta larrialdien testuinguruetan. Hori guztia funtsezkoa da epe ertain eta luzeko garapen jasangarriaz hitz egiteko, giza eskubideak babesteko eta munduko eskualde behartsuenetan pobrezia eta desberdintasunaren zikloa hausteko, inor atzean utzi gabe.

Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko otsailaren 15eko 3/2024 Legea aukera bat da Euskadik bere rola eta eragina indartu dezan haurren, nerabeen eta gazteen eskubideen babes eta sustapen eraginkorren, behar handiena dutenean, beren etorkizunaren alde apustu eginez, erronka eta larrialdi globalen testuinguruan.

PROPOSAMENAK

1 Lankidetzarako Gida Planean haurtzaroari zuzendutako estrategia bat txertatzea, Estatuko lankidetzarekin eta 2030 Agendarekin bat datorrena, eta multilateralismoarekiko eta Nazio Batuen esparruarekiko konpromisoa jasotzen duena, aurre egin beharreko erronka globalei behar bezala heltzeko eta lankidetzaren deszentralizatuak horiei erantzuten laguntzeko.

2 Aurrekontuaren % 0,7 Garapenerako Lankidetzara bideratzeko nazioarteko konpromisoa betetzea, haurrei zuzendutako ehunekoaren jarraipen egokia eginez, eta baliabide eta tresnen bidez herritartasun globalerako hezkuntza babestuz.

HAURRAK ETA NERABEAK ZAINTEA ETA BABESTEA, BEREZIKI MUGIMENDUAN DAUDEN HAURRAK



Haur eta nerabe guztiek dute Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren eta Haurren eta Nerabeen Euskal Legearen babesean egoteko eskubidea, non jaio diren

edo gaur egun non bizi diren kontuan hartu gabe. Erakundeen betebeharra da haurrak babesik gabe geratzeko arrisku-egoerak prebenitu, detektatu eta konpontzeko jarduerak aurrera eramatea. Nolanahi ere, neurri horiek administrazioek familia biologikoei ematen dieten laguntza integral eta diziplina anitzekoarekin batera hartu behar dira, familia horiek beren seme-alabak babesteko gaitasuna berreskura dezaten.

Bakarrik dauden haur migratzaileak bereziki kalteberak dira babes-eremuaren barruan. Babes-sisteman integratu behar dira; zenbaitetan, ordea, laguntza

espezifikoa behar dute, deserrotuta daudelako, abusuen eta esplotazioaren biktima izateko arriskua dutelako, eta beren herrialdean edo beren ibilbidean indarkeria-egoerak bizi izan dituztelako.

2021ean Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren Aurrean Osorik Babesteko Lege Organikoa (LOPIVI) onartu zen; hain zuzen ere, haurrak eta nerabeak indarkeria-mota desberdinengandik prebenitzeko eta babesteko bereziki bideratutako araudia. Legearen helburua da: haur eta nerabeentzako ingurune seguruak eta babesleak sortzea guztion partehartzea eta konpromisoarekin.

Lege honek bere helburua bete dezan, funtsezkoa da erakunde publikoek oinarritzko zerbitzu-multzo bat abian jartzea.

PROPOSAMENAK

3 Sektoreen eta erakundeen arteko koordinazioa bultzatzea, beharrezko baliabideak ziurtatuz eta eskumenen esparruan ekintza koordinatua gauzatuz, eta haur eta nerabe guztien eskubideak bermatuz, partaidetza eta eskolatzea barne. Hori guztia integrazioan eta helduarorako trantsizioan oinarrituta.

4 Haurren eta Nerabeen euskal Legea eta LOPIVI legea autonomia-erkidegoan ezartzeko zenbait ekintza garatzea, besteak beste: arauak garatzea, protokoloak diseinatzea, organoak eta figurak sortzea, tartean Ongizateko eta Babeserako koordinatzailearena eta Babeserako ordezkariarena, baita hurrekin harremanetan lan egiten duten hainbat zerbitzutako langileak prestatzea, hala nola segurtasun-indarretako eta botere judizialeko langileak; osasun-, hezkuntza- eta gizarte-zerbitzuak; eta kirol- eta aisia-eremuko ekintzetan parte hartzen dutenak. Oro har, haurren inguruko komunitatea osatzen duten guztiak.

Bakarrik dauden haur migratzaileak babestera bideratutako neurri espezifikoak:

- Bideratze Mekanismo Nazionalaren funtzionamenduan parte hartzea eta sustatzea, bakarrik dauden haur migratzaile guztientzako babes-maila egokia bermatzeko.
- Migrazio-krisien testuinguruan haur migratzaileei erantzun eraginkorra, koordinatua eta erantzukizun partekatuetan oinarritua emango zaiela bermatzea, Migrazio Kontingentzia Humanitarioak Kudeatzeko Eredu bat abian jarrita, haurren eskubideen ikuspegiarekin, sektore pribatua inplikatu duena eta erantzun egokia eta kalitatezkoa eskaintzeko beharrezkoak diren baliabideak bermatuko dituen, emantzipaziora arte laguntza nahikoa eta egokia emanez.
- 2022-2025 aldirako Herritartasun, Immigrazio eta Asilorako Kultura arteko VI. Planaren garapena, jarraipena eta ebaluazioa, haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegitik.

HAURREN POBREZIA ETA GIZARTE-BABESA



Haurrek eta nerabeek hainbat erronkari egin behar diete aurre, besteak beste haurren gero eta pobrezia eta desberdintasun handiagoari, hezkuntza-arrakala handitzeari, beren osasun fisiko eta mentala eta beren familiena izaten ari den mehatxuari, krisi klimatikoaren eraginari, eta gatazkek ekarritako krisi ekonomikoen ondorioei. Haurrentzako mundu hobeago bat berrasmatzeko unea da, eta horretarako hainbat neurriren erdigunean kokatu behar dira, gizarte erresilienteagoa ziurtatzeko eta gure autonomia-erkidegoko haurren eskubideak babestu eta bermatzera bideratzeko.

Euskadin, haurren % 20,1 (71.217 haur inguru) pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskuan bizi dira (BBI 2023- EIN, atalase autonomikoa); eta Estatuko atalaseari dagokionez, zifra % 13,7koa da, hau da, 15,2 puntu gutxiago Estatuko batez bestekoarekin alderatuta (% 28,9). Autonomia-erkidegoko atalaseari dagokionez, 2022ko ehunekoarekin alderatuta 4,2 puntu jaitsi den arren, EAEko haurren artean pobrezia

edo gizarte-bazterketa izateko arriskuak biztanleria osoarena baino handiagoa izaten jarraitzen du. Haurrak diru-sarrerei dagokionez atzean geratzen ari dira, eta horregatik, arrisku handiagoa dute beste esparru batzuetan ere atzean geratzeko, hala nola osasunean edo hezkuntzan. Haurren desberdintasun horrek eragina du haien bizitzetan eta garapenean, baina, gainera, eragina du eta arriskuan jartzen du euskal gizarte osoaren ongizatea epe ertain eta luzean.

Euskadiko haurren eta familien babesera zuzendutako inbertsioa gizarte-babeserako gastu osoaren % 3,4koa da, eta Europan, berriz, haur eta familien gizarte babeserako gastua % 8,3koa da, batez beste. Aurrera egin behar dugu haurren eta familien aldeko politiken aurrekontuak progresiboki handitzeko konpromisoan, 2030erako Europako egungo batez bestekoaren helburua lortu arte, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren 1. helburuarekin (pobrezia murriztea) eta 10. helburuarekin (desberdintasuna murriztea) bat etorritik.

PROPOSAMENAK

5 EAEko haurrentzako politika publikoen egonkortasuna eta kalitatea zaintzea, hurrei eta haien familiei zuzendutako baliabideak lehenetsiz. Haurren aldeko ikuspegitik aurrekontuen azterketa egin eta haurrengan eragina neurtzeko aurrekontuen legea abiapuntutzat hartuta, hurrei zuzenean edo zeharka eragiten dieten programak eta partidak eta haien helburuak identifikatu behar dira, finantzatutako ekintzen eragina eta baliabideen nahikotasuna baloratu. Horrela, inbertsio nahikoa eta egokia bermatu behar da, aldaketa politiko eta ekonomikoen aurrean blokeatu, eta efizientzia, eraginkortasuna, ekitatea, gardentasuna eta jasangarritasunaren irizpideei jarraituz.

6 Haur kalteberei funtsezko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea (hezkuntzaren, nutrizioaren, osasunaren eta etxebizitza egokia lortzearen arloan), baita haurren pobreziaaren aurkako borroka ere, Europako Haur Bermea EAEn inplementatzen dela ziurtatuz, autonomia-erkidegoko estrategia edo plan operatiboaren garapenaren eta jarraipenaren bidez, tokiko eremuarekin koordinatuta.



HAURREN ETA NERABEEN ONGIZATE EMOZIONALA ETA OSASUN MENTALA



Ongizate emozionalaren eta osasun mentalaren ahalik eta maila altuena izateko eskubidea osasunerako giza eskubidearen funtsezko alderdietako bat da, Haurren

Eskubideei buruzko Konbentzioak aitortua. Nazioarteko itun horretatik eratorritako betebeharrak prebentzio- eta tratamendu-neurriak ez ezik, osasunaren eta ongizatearen baldintzatzaile psikologikoak eta sozialak hobetzea ere dakarte.

Estatuan eskuragarri dauden datuen arabera, osasun mentaleko kontsultetan (psikiatria eta psikologia klinikoak) eta esku-hartze psikologiko eta sozialetan artatutako kasuen kopuruak gora egin du. Bizi dugun egoerak erronka oso garrantzitsuak sortu ditu osasunaren arloan eta, aldi berean, aukera bat izan daiteke EAEko haurren osasun mentaleko sistema behin betiko indartzeko eta etorkizuneko larrialdien aurrean prestatzeko.

PROPOSAMENAK

7 Haurren eta nerabeen osasun mentaleko ekintza-plan espezifiko bat garatzea, Osasun Mentaleko 2023-2028 Euskal Estrategiaren barruan. Plan horrek hainbat zerbitzu hartu behar ditu barnean —prebentzioa, detekzio goiztiarra, sustapena eta arreta— sektore anitzak biltzen dituen ikuspegi komunitario batetik, gurasotasun positiboko programekin, baita ikuspegi psikosozialetik ere, neurri espezifikoak barne hartuta, horiei lotutako praktikak eta arazoak prebenitu eta eteteko, besteak beste: tratu txarrak (zabarkeria eta indarkeria), sexu-abusua, bullyinga, ziberjazarpena, sexortsioa, suizidioa, sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioa, xenofobia, alkohol-kontsumoa, substantzia toxikoekiko adikzioak, teknologiak eta apustuak, baita bestelako arrisku-portaerak ere.

8 Lehen mailako arretaren eginkizuna eta profesionalen hornidura indartzea (familia-medikuak, pediatriak, psikologo klinikoak edo sanitarioak) eta haien koordinazioa bermatzea hezkuntza-eremuan haur eta nerabeei laguntza psikosoziala ematen dieten gainerako profesionalekin —bereziki Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearekin— eta, era berean, beste eremu hauek ere barnean hartuta: gazteen babes-sistema, justizia-sistema, errefuxiatuei edo asilo-eskatzaileei harrera egiteko sistema, desgaitasunen bat duten haurrentzako baliabideak, gizarte-zerbitzuak, etab.



TEKNOLOGIA ETA HAURREN ESKUBIDEAK EREMU DIGITALEAN



Haurren eta nerabeen eskubideak ingurune digitalean ere errespetatu, babestu eta gauzatu behar dira.

Harreman, Informazio eta

Komunikaziorako Teknologia (HIKT) garatzeko eta ikasteko abantailak eta aukerak eskaintzen dizkiete nerabeei eta, gainera, ekarpen garrantzitsu bat dira maila sozialean eta emozionalean. Hala ere, teknologia berriek arrisku handiak ere dakartzate; adibidez, Euskadiko 10 nerabetik batek sexu-

proposamen bat jaso du Interneten heldu baten aldetik, eta 10 nerabetik 2 ziberjazarpenaren biktima izan daitezke.

Haurrek eta nerabeek Interneten segurtasunez ikasi eta nabigatu ahal izateko, arriskuak kudeatzeko eta IKTak modu osasungarri, orekatu eta errespetuzkoan erabiliz hazteko trebetasunak eta tresnak izan ditzaten, UNICEFek honako hau proposatzen du:

PROPOSAMENAK

- 9** Harremanetarako, Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologia erabiltzearen ondorioz haurren eskubideak urratzen diren modu berri eta gero eta nabariagoen aurrean haiek babesteko araudi, protokolo, programa, neurri eta mekanismoak sortzea edo eguneratzea.
- 10** Esku-hartzeak areagotzea, hezkuntzaren eremuan gaitasun digitalak garatzera bideratuak, beharrezko tresnak eta laguntza eskaintzea familiei eta nerabeei, industria teknologikoa eta haien ongizate digitala sustatzeko bete behar duen funtsezko rola ahaztu gabe.



ERANTZUN CHECK LIST HONI, HAURRAK ETA NERABEAK ZURE HAUTESKUNDE-PROGRAMAN KONTUAN HARTU DIREN EGIAZTATZEKO

HAURREN ETA NERABEEN AGERIKOTASUNA

■ Haurrek eta nerabeek leku nabaria dute hauteskunde-programan? Haurrak eta nerabeak eta beren eskubideak zehazki aipatzen dira programaren sarreran eta/edo laburpenean?

■ Bada programaren atal nagusi bat haurrei eta nerabeei buruzkoa? Programaren aurkibidean haurrei eta nerabeei zuzendutako proposamenak jasotzen dira, gutxienez gizarteko talde edo sektore zabalei eragiten dieten beste politika batzuek hartzen duten maila berean, esaterako genero-politikek edo adinekoenek?

■ Haurrak eta nerabeak subjektutzat hartzen dira eragiten dieten funtsezko politikan? (Hezkuntza, Gizarte Babesa, Babes Juridikoa) Seme-alaba, ikasle, erabiltzaile, adingabe, edo onuradun gisa ez ezik, haur eta nerabe gisa ere ageri dira?

■ Ikusgai daude beste politika orokor/zeharkako batzuetan? (Garapenerako Lankidetzat, Migrazioak, Enplegua, Etxebizitza, Ingurumena, etab.) Kontuan hartzen dira haien eragina duten politiketan neurriak diseinatzeko orduan?

ESKUBIDEEN IKUSPEGIA ETA POLITIKEN ESPARRUA

■ Hauteskunde-programak jasotzen ditu haurrak eta nerabeak Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren eta Estatuko eta nazioarteko beste oinarritzko erreferentzia batzuen esparruan? Aitortzen dira Haurren eta Nerabeen otsailaren 15eko 2024/2 Lege berria eta Familia eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Ituna? Jasotzen dituzte programek Europako Batzordearen Haurtzaroan Inbertitzeko

Gomendioa (2013), Europar Batasunaren Zutabe Soziala eta migrazioei buruzko Global Compact ekimena bezalako akordioak?

■ Proposatutako neurriak garrantzitsuak dira haurren ongizaterako? Neurrietan haurtzarotik eta nerabezarotik heltzen zaio ikuspegiari, eta horrek haurren eta nerabeen ongizatean eta eskubideetan duen eraginari?

■ Behar duten neurriekin batera gastuaren/inbertsioaren zenbatespena egiten da? Badago zenbatespenik eta konpromisorik neurriak ezartzeko beharrezkoa den inbertsio publikoari eta neurri horien eta lortu nahi diren helburuen inpaktuari buruz?

HAURREN PARTAIDETZA

■ Haurrek eta nerabeek zuzenean parte hartu dute? Edo, gutxienez, kontuan hartu dira beste iturri batzuetatik jasotako iritziak (haurren aldeko erakundeak, inkestak, haurren topaketak, haurren udal-kontseiluak, etab.)?

■ Badago programaren edo haurren eta nerabeen aldeko neurri espezifiko bertsiorik haurrei egokitua? Uler ditzakete berentzat diren neurriak eta berengan izan ditzaketen ondorioak?

EKITATEA

■ Arreta bereziz begiratzen zaie haur eta nerabe kalteberenei? Badago neurri espezifikorik haien eragina? Zein ondorio izango lukete proposatutako neurriek haur hauengan: pobrezian bizi diren haurrak, desgaitasuna duten haurrak, haur migratzaileak, babes-sisteman edo sistema judizialean dauden haurrak, edo beste egoera edo kolektibo zaurgarrien parte diren haurrengan?

BAIETZ ERANTZUN DIEZU 10 GALDERA HAUEI? BAI?

ORDUAN, HAUTESKUNDE-PROGRAMA HAU *PROGRAMA BIKAINA DA HAURRENTZAT*

